

**2021EKO MARTIAREN 24KO BATZAR NAGUSIAREN**

**BATZAR-EGUNKARIA (ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE**

**FECHA 24 DE MARZO DE 2021 (TRADUCCIÓN)**

## **AURKIBIDEA**

### **Orrialdea**

- Batzarra hasi da.....	3
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “Eskaerretarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzordearen Memoria Zuriketa, 2019ko irailaren 1etik 2020ko uztailaren 30era arteko aldiari jagokona.”.....	3
- Euzko Abertzaleak taldeko Beitia Zurinaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	3
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	5
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	6
- Euskal Sozialistak taldeko Rebollo Frías batzarkide andreak hartu dau berbea .....	7
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea .....	8
- Euzko Abertzaleak taldeko Lamborena Barreras batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	9
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2018. urterako Kontu Orokorra.”	10
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea .....	10
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	11
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	11
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	13
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea .....	14
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	16
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “UGAO-MIRABALLESko armari heraldikoa aldatzeko erabakia, Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiarekin bat etorriz hartutakoa.”.....	19

- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea ..... 19
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea ..... 20
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea ..... 20
- Euzko Abertzaleak taldeko Gómez Devesa batzarkide andreak hartu dadu berbea ..... 20
- Batzarra amaitu da..... 20

2021eko martiaren 24ko batzarra  
goizeko 11:25etan hasi da.

Se inicia la sesión del 24 de marzo  
de 2021 a las 11:25 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Antxustegi Ziardia, y, agotado el Orden del Día de la Sesión de Control, inmediatamente vamos a dar comienzo a la siguiente Sesión Plenaria. Para lo cual, señor Secretario, el punto primero es del siguiente tenor literal:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Informe-Memoria comisión. (Artículo 46 del reglamento). [\(R.E.11/E/2020/0002634\)](#)

**Autor:** Beitia Zurinaga, Gorka (EAb/NV)

**Asunto:** Informe Memoria de la Comisión de Peticiones y Relaciones Ciudadanas, correspondiente al periodo comprendido entre el 1 de Septiembre del 2019 y el 30 de julio del 2020.

**Documento Principal:** [\(R.E.11/E/2020/0002634\)](#)

**Expediente:** [\(11/D/09/0001834\)](#)

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzeara:

**Jatorrizko ekimena:** [\(11/E/2020/0002634SE\)](#)

**Egilea:** Beitia Zurinaga, Gorka (EAb/NV)

**Gaia:** Eskaeretakako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetakako Batzordearen Memoria Zuriketa, 2019ko irailaren 1etik 2020ko uztailearen 30era arteko aldiari jagokona

**Dokumentu Nagusia:** [\(11/E/2020/0002634SE\)](#)

**Espedientea:** [\(11/D/09/0001834\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Tiene la palabra el Presidente de la Comisión. Señor Beitia Zurinaga, tiene la palabra.

El Sr. **BEITIA ZURINAGA** jaunak: Muchas gracias, y buenos días a todos/as. Comparezco aquí para dar cuenta de la Memoria Justificativa de 2019-2020 de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía, con un poco de retraso respecto a otros años, pero, como todos/as sabemos que este año ha sido muy extraño, disculparán este retraso.

La Comisión se constituyó el día 22 de julio de 2019, donde fui elegido presidente, y hoy comparezco ante estas Juntas Generales por ese motivo, para la presentación como presidente de la memoria justificativa.

En virtud del artículo 46 del vigente Reglamento de las Juntas Generales de Bizkaia, la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía debe remitir anualmente al Pleno un informe-memoria sobre sus actividades. En cumplimiento de lo estipulado en nuestro Reglamento, comparezco aquí ante ustedes.

Para empezar, del mismo modo que digo y actúo en todas las comisiones, recordarles, más que nada porque los/as que no participan en la Comisión se encuentran en este

Pleno, recordarles que esta Comisión no es igual que la mayoría de las comisiones que se llevan a cabo en estas Juntas Generales, porque sus protagonistas principales son la ciudadanía y las instituciones. Por lo que el objetivo de los grupos políticos que participan en ella es escuchar y preguntar sin entrar en ningún tipo de debate, puesto que esos debates se llevarán a cabo en las iniciativas que se pueden presentar posteriormente.

Por tanto, de momento, vamos a continuar con el trabajo y la dinámica de la anterior legislatura, en esta segunda legislatura de esta Comisión.

A continuación, voy a proceder a la justificación de las iniciativas llevadas a cabo desde el día 1 de septiembre hasta el día 30 de julio.

Este ha sido un año muy especial, porque ha sido el primer año de la legislatura, porque se ha constituido y se ha puesto en marcha una nueva comisión y porque para muchos/as ha supuesto una nueva comisión. Sin embargo, huelga decir que lo que ha provocado que este sea un año especial ha sido, por supuesto, el Covid-19 y la pandemia posterior, lo que ha implicado que durante unos meses no se hayan podido realizar comparecencias y que, al igual que nos ha ocurrido en muchos ámbitos de la vida, aquí también ha habido retrasos...

De todas maneras, en este primer año de la legislatura, nos hemos reunido en 6 ocasiones, menos que en años anteriores, pero la razón, tal y como lo he expresado, ha sido la pandemia. No obstante, hemos tramitado todas las peticiones planteadas en un corto plazo, y, a pesar de que las planteadas a partir del mes de mayo han sufrido un retraso, los retrasos también han estado dentro de plazo.

En esas 6 comisiones, hemos tratado 8 peticiones, de distintos ámbitos, tanto las procedentes de la ciudadanía como también las procedentes de las instituciones. Por ejemplo, los temas tratados han sido los siguientes: la emergencia climática, los/as ganaderos/as de La Arboleda, los/as pensionistas de Bizkaia, los/as vecinos/as de Artxanda, la problemática en torno a una oposición, así como los generados como consecuencia del Covid.

A pesar de haber tratado todos esos temas, debemos tener en cuenta que debemos cumplir y respetar lo que establece nuestra normativa interna. Dice esa normativa que, tras escuchar las peticiones, se pueden presentar mociones u otro tipo de iniciativas relativas a esos temas en estas Juntas Generales y que esa labor corresponde a los grupos políticos. Recordarles también que la mayor parte de las peticiones han estado relacionadas con temas que son competencia de estas Juntas Generales. A pesar de que todos los temas pueden ser tratados en la Comisión, se debe tener en cuenta que, para que los grupos junteros puedan presentar iniciativas relativas a esos temas que se han analizado, deben ser temas de nuestra competencia.

El informe-memoria es el siguiente:

- Ecologistas en Acción. La reivindicación sobre la emergencia climática basada en las mociones presentadas en los ayuntamientos.

- Javier Ugarte y José Antonio Quintana. Las recientes sentencias del Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº 1 de Bilbao, respecto al pastoreo llevado a cabo sin autorización en La Arboleda (montes de Grumeran). Este asunto se planteó mediante dos peticiones, y, una vez acordado con ellos, se trató en un solo punto.

- Movimiento de las Personas Pensionistas de Bizkaia. Complementar con la renta de garantía de ingresos las pensiones más bajas, hasta alcanzar el salario mínimo interprofesional, y actualizar las ayudas para paliar la pobreza energética.

- Plataformas Vecinales de Artxanda. La zona de seguridad libre de caza de Artxanda.

- Adrian Oiarbide. La situación de las personas aspirantes que han aprobado en el proceso para cubrir 26 puestos de Enfermería, en la oferta pública de empleo de 2016-2017 del Instituto Foral de Asistencia Social.

- Coordinadora de ONGD de Euskadi. Ante las crisis provocadas por la expansión del Covid-19 y sus consecuencias sociales y económicas, nuestro posicionamiento para dar una salida directa e inclusiva a la crisis, para transmitir y presentar medidas y para, junto con todos/as los/as agentes sociales y políticos, alcanzar un pacto foral.

- Por último, se realizó la comparecencia de Babestu, para solicitar que las instituciones públicas intervengan en las residencias cuando los casos de Covid superen el 30%.

Para terminar, agradecer a todas las personas que han acudido a esta Comisión para transmitirnos sus problemas, quejas y preocupaciones, en un formato que no les resulta sencillo. Asimismo, agradecer a todos/as los/as miembros que integran la Comisión, por la paciencia mostrada con este presidente.

Muchas gracias también a todo el personal de estas Juntas Generales, por su apoyo y ayuda. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Beitia Zurinaga, y, a continuación, vamos a dar comienzo al turno de los grupos. Para ello, señora Fernández Angulo, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, que va a intervenir desde su escaño, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Bai, eskerrik asko, mahaiburu andrea, labur-labur.

Lehenengo eta behin, bat egin gura dogu batzordeburuak Eskerretarako eta Herritarrakazko Hartu Emonetarako Batzorde honetan parte hartzeko asmotan bertaratu diran persona eta erakunde guztiei adierazo deutsezan eskerronakaz. Beharbada, esperientzia laburra daukat batzorde honetako partaidetzan, baina aitatu egin gura dot nire eretxiz hobekuntza-arloa izan daitekeala etorkizunari begira. Bertan, ganera, danok argi ikusten dogu Bizkaiko herritar gehienek ezer gitxi dakiena batzorde honi buruz, nik uste. Izan be, askotan, bilbe instituzionalagaz lotune handiagoa daukien erakundeetara edo entidadeetara mugatzen da, eta, beharbada, arlo horretan sakondu daikegu Bizkaiko Batzar Nagusiok, guretzat erabilgarria, ona eta egokia dan tresna honek partaidetza handiagoa euki daien, bizkaitarrek ezagutu ezkerro. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Señor Benito Ziluaga, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra. Aprovecho para comunicarles que la hoja de firmas correspondiente a esta segunda Sesión Plenaria está sobre la mesa. Por favor, pasen a firmar después. Dicho lo cual, señor Benito Ziluaga, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, ba, egia esan, interesgarria da batzorde honen, Herritarren Eskarretarako Batzordearen lanari buruzko hausnarketa-ariketea egitea. Ezohiko batzordea da, baina, azkenean, herritarrakaz era guztietako gai zehatz-zehatzei buruz zuzenean berba egiteko aukerea be eskaintzen deusku, eta, ezelako zalantza barik, Batzar Nagusiek jagon eta bultzatu beharko leukien balioa da batzorde hau.

Izan be bada, legealdiaren erdialdean gagozalako, eta uste dogu une egokia dala eztabaida honetan eretxi-truke zintzoa eta konstruktiboa egiteko eta, horren ondorioz, bere jardunbidea hobetzeko moduko proposamenak urteteko. Horrexegaitik be, badinotsut, Beitia jauna, gure ekarpenetakoren bat interesgarria dala uste badozu, erabateko eskaintzea egiten deusugula jorrazteko edo beste leku batzuetan gehiago sakontzeko.

Tira, lehenengo eta behin, zoritxarrez, ikusi egiten dogu, Fernández andreak lez, oraindokarren be batzorde hau oso ezaguna ez dala. Hori dala eta, Batzar Nagusion ustetan, batzorde honen zabalkundea hobetu beharra dago, bere jardunbidea nahiz bertara ailegetako modua, azken batean partaidetzarako guneak zoliagoak diralako, zenbat eta gehiagotan erabili.

Bigarrenez, oraintxe bertan gune horretan parte hartzeko zailtasunak jarten dabilzan gai administratiboak dagoz, erraz konpondu daitekezan arren. Berbarako, oraindokarren Batzar Nagusiek ez daukie herritar guztientzat zabalik dagoan erregistro elektronikoa, nahiz eta apirilaren 2rako, hau da, datorren astea, sartu egiten dan, tira, Administrazio Publikoei buruzko Legeak emoten dauan gehieneko epea dan erregistro elektronikoa abian jarteko.

Bestetik, oso erraza izango litzateke honako hauxe berrikustea: eskabide-orria, zuk zeuk badakizunez, beti emoten daualako, datuen babesaren gaiak errakuntzak sorrarazoten dauzalako beti; eta bilerak atea itxita edo atea zabalik egitea.

Hirugarrenez, Beitia jauna, zeure txostenean adierazo dozunez, eskabide guztiak epe laburrean bideratu dira. Tira, egia esan, eztabaida hau baino lehen, ez nintzan eretxi berekoa. Halanda ze, kalkulau egin dot batez beste zenbat denpora igaroten dan mahaiak eskatzailearen erregistroa onartzen dauanetik harik eta batzordea egiten dan arte, eta, lehenengo konfinamentuan atzeratu diranak kenduta, agirikoa danez, batez besteko itxaronaldia hilebete bikoa da. Nire eretxiz, hobekuntza-marjina nahikoa daukan epea da, eta, bertan, uste dot horretan aurrera egin beharko geunkeala, hau da, eskaeren inguruko deialdia epe laburrean, epealdi laburragoan egitea, foru-diputaduen batzorderatzea izapidetzeko epea 15 egunekoa dala kontuan hartuta, berbarako. Izan be, alde nahikoa dago hor.

Laugarrenez, zeure txostenean be aitatu dozunez, gure barruko arautegiaren arabera, talde politikoek mozinoak edo beste era bateko ekimenak aurkeztu ahal izango dabez Batzar Nagusiotan. Tira, hor errakuntzea dagoala uste dot. Nire eretxiz, ohiturea eta arauan esaten dana bereizi behar dira, eta, kasu honetan, arau hori araudia da. Izan be, araudira joten badogu, 46.3. artikulura, hain zuzen be, egiaztatu egin ahal izango dozu eskatzaileei entzutea baino nahikoa gaitasun gehiago daukazana batzordeak. Gure taldearen ustetan, garatzen hasi beharreko beste gai garrantzitsu bat izango litzateke hau: Batzar Nagusiek erakunde moduan eta Batzordeak organu zehatz moduan eskaeretan daukien inplikazio-mailea hobetzea.

Hori epe laburrari begira. Epe luzera, barriz, niretzat interesgarria be izango litzateke moduren bat aztertzea, atontzea, talde eskatzaileak Ganberan bertan beste era bateko prozedurak abian jarteko aukerea euki daian; esate baterako, arau besteko proposamenei buruzko eztabaidea edo, era berean, foru-arautegiaren eraldaketei buruzkoa be bai. Hain zuzen be, Eusko Legebiltzarreko LHE-en prozesuen antzeko zeozer izan leiteke, edo zentzun horretan

doan zeozer. Hori, esan dodanez, epe luzeagora izango litzateke, baina uste dot epe laburrera Araudiko 46.3. artikuluko horrek eskaintzen dauzan aukerak arakatu leitekezala. Uste dot badagoala hori egiterik.

Labur-labur esanda, 4 ekarpen egin doguz. Lehenengoa, zabalkundea handitzea; bigarrena, gai administratiboak konpontzea; hirugarrena, epeak laburtzea; eta laugarrena, araudiak eskaintzen eta proponiduten deuskun ekintza-gaitasun guztiari onurea ateratea. Hori dala eta, abstenidu egingo gara bozketan.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Ez dago bozketarik, jauna.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Parkatu. Ondo da. Halanda ze, ez gara absteniduko, ez dagoalako zer bozkaturik. Hori dala eta, ezer be ez, ekarpen honek itxiko doguz hemen, eta, tira, inoanez, bai, bai, bai, badago interesik batzorde hau bultzatzen, hobetzen segiduteko. Hortxe daukazu gure eskaintzea. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. Señora Rebollo Frías, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **REBOLLO FRÍAS** andreak: Muchas gracias, Presidenta. Buenos días a todos/as.

Barriro be, Osoko Batzarrari aurkeztu jako Eskaerarako eta Herritarrakazko Hartu Emonetarako Batzordearen memoriari buruzko txostena; oraingoan, 2019ko irailetik 2020ko garagarriera doan epealdiko txostena. Oso epealdi berezia izan da, legealdiaren hasiereagaz bat egin daualako, eta badakigu zelakoak diran hasierak. Dana dala, batez be, epealdi berezia izan da, pandemiapean bizi izan garalako.

Jarduera politiko eta sozialeko beste arlo batzuetan lez, batzorde honen dinamikan be euki dau eragina. Epealdi luzean, danok gura izango genduan baino luzeagoan, batzartzea ezinezkoa izan danez, batzorde honetako jarduerak gitxitu egin da.

Halanda be, azaldu jakun lez, 6 bider batzartu gara. 6 bider horreetan, era bateko eta besteko giza taldeen kezkei buruzko informazio zuzena jasoteko aukerea euki dogu. Honako honexegaz lotutako kezkek eta eskaerak entzuteko abagunea euki dogu: larrialdi klimatikoa; pentsinodunen eskaerak; Zugastietan baimen barik larratzeagaitik sortutako arazoak; Artxandako ehiza bako segurtasun-eremua; GUFeko lan-eskaintzan Erizaintzako lanpostuak beteteko gaintu daben izangaien egoera; Covid-19aren ondorioak, hirugarren sektoreko ordezkarren begiradatik; eta egoitzetako edadekoen familien erreklamazioak eta kexak.

Eskerrik asko euren eskaeren, kexen, interesen eta ikaren barri emon deuskuen guztiei. Badakigu erraza ez dana. Sozialistok batzorde hau indartzen segiduteko apustua egiten dogu. Mekanismo guztiak jarri behar doguz, erakundeen eta herritarren ahotsa eta euren proposamenak gure ailegatu daitezkan. Gure, talde politikoon betebeharra da herritarren artean eragina daukien arazoak eta interesak entzutea eta geure gain hartzea, konpromisoak hartzeko eta konponbiderako ekimen politikoak garatzeko. Muchas gracias.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Rebollo Frías. Señora Duque Santacoloma, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Sí, muchas gracias. Casi-casi buen mediodía a todos/as.

Tenemos aquí el primer informe-memoria de la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía de esta legislatura, y estamos abriendo una reflexión al respecto.

Desde que esta Comisión se puso en marcha en la anterior legislatura, disponemos de elementos para la valoración de su trayectoria y evolución. En ese sentido, el primer tema que debemos analizar, a nuestro entender, es el grado de eficacia de la actividad de la Comisión.

Aquí, se han mencionado datos cuantitativos, y que ha sido un año especial, eso está claro. Debido al Covid, algunos meses nos ha resultado imposible llevar cabo la Comisión, lo que nos ha afectado, como es lógico. Asimismo, esta crisis también nos llevó a buscar nuevas formas de funcionamiento en el resto de comisiones, como por ejemplo las reuniones telemáticas que han venido a buscar nuevas formas de participación.

Creemos que las nuevas vías telemáticas pueden abrir una ventana a las Juntas Generales, y creemos que puede suponer una reflexión para profundizar en la participación ciudadana.

Alde horretatik, Xabierrek lehen egin dauan moduan, geuk be proposamen zehatz batzuk ekarri doguz. Ildo horretatik, uste dogu urrats batzuk emon daikeguzala herritarren partaidetzan sakontzeko. Zentzun horretan, bide telematikoen inguruko batzuk egin doguz.

Lehenengo eta behin, batzordeen emonaldiak Batzar Nagusien webgunean egon beharko litzatekez ikusgai, osoko batzar honeekaz egiten dogun lez. Holan, gero, grabazioak ikusi ahal izango doguz, ikusteko zailtasunik euki badogu, edo batzorde honen inguruko interesa daukien herritarrek ordutegi horretan on line emonaldia ikusteko aukerarik euki ez badabe, beste une batean ikusi ahal izango dabe. Bertan egiten dogun proposamena da.

Bestetik, alde horretatik, hausnartu egin beharko litzateke euren kezken barri emoten gurera datozan personek eta erakundeek be modu telematikoan eta ez zuzenekoan parte hartu daikien.

He planteado dos propuestas, y también hemos de decir que en este informe también echamos de menos otra cosa, para lo que hemos traído otra propuesta al respecto. Lo que hemos echado de menos es la opinión y la valoración de los/as agentes y los/as particulares, y creemos que eso podemos sistematizarlo de manera sencilla.

Hona hemen puntu horren inguruan egiten dogun proposamena, eta erraza, zehatza eta aise sistematizetako modukoa dala uste dogu: batzordean parte hartzen daben personen eta erakundeen balorazioa batzea.

A pesar de que ha sido un año especial, este año vemos de nuevo que algunos/as que participan en la Comisión vienen a explicar sus preocupaciones o sus problemas con la Diputación. Es cierto que esta cuestión se repite todos los años de una manera u otra. Por tanto, creemos que también deberíamos abrir una reflexión al respecto.

Las instituciones públicas estamos obligadas a dar los pasos pertinentes para garantizar la participación ciudadana en las políticas públicas, para lo que creemos que debemos poner los recursos necesarios al servicio de la ciudadanía, y no solo facilitando simples espacios relacionales.

Respecto a la Comisión de Relaciones con la Ciudadanía, creemos que debemos ir más allá, puesto que no creemos que la responsabilidad única de impulsar iniciativas políticas debe recaer solamente en los/as políticos/as o los partidos: si en las políticas públicas pretendemos impulsar una participación real, creemos que hemos de abrir el camino.

Si pretendemos que esta Comisión sea realmente eficaz, debemos empoderar a las personas y agentes que acuden a la misma, y, para ello, las propuestas que plantean no pueden quedar solo en nuestras manos. Creemos que también podemos regular eso.

En todas las comisiones, escuchamos que no se puede realizar ningún tipo de valoración política, y también se ha comentado hoy, pero creemos que eso no es justo. No creemos que debamos entrar en debates partidistas, pero sí que se debería proporcionar un espacio para la expresión de opiniones políticas en esa Comisión.

Para finalizar, creemos que es una herramienta muy valiosa, si pretendemos abrir vías para la participación ciudadana, y que, si pretendemos mejorar el grado de eficacia de esta Comisión, podemos mejorar muchas actividades. Desde aquí, Gorka, le invito a que nos reunamos en otro formato, para tratar entre todos/as estas propuestas. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Duque Santacoloma. Por último, señor Lamborena Barreras, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **LAMBORENA BARRERAS** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Hoy, el Presidente de la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía, el señor Beitia, ha presentado el informe en cumplimiento del reglamento de estas Juntas Generales.

Esan dodanez, gaur, Eskaeretakako eta Herritarrakazko Hartu Emonetarako Batzordeko buruak, Beitia jaunak, batzordearen urteko txostena aurkeztu dau, Batzar Nagusi honeetako indarreko araudia beteteko asmotan. Berak zehatz-mehatz azaldu deuskunez, batzorde hau 6 bider batzartu da danetara, era bateko eta besteko giza taldeek proponidutako 8 gai desbardin jorratzeko. Hori dala eta, azaldu egin danez, beherakadea egon da aurreko epealdien aldean, baina batez be Covid-19aren pandemiaren ondorioz sortutako egoereagaitik dala uste dogu.

Danok dakigunez, batzorde honetan ez da balorazino politikorik egiten. Talde bakotxa da jasotako eskaerearen inguruko ekimenen bat aurkezten dan erabagiten dauana, talde horreek diralako euren esku daukiezanak horreek aurkezteko behar diran tresnak, betibe, Ganbera honen eskumenakaz bat etorri behar dirala kontuan hartuta.

Gure taldeak ontzat emoten dau batzorde honen lana. Izan be, herritarren eta instituzinoaren arteko topagunea eta zubia izan da, alkarren segidako legealdi bitan. Tresna horrek, hain zuzen be, berbea emoten deutse herritarrei, eta talde politikook errazago emon ahal dogu euren proposamenen edota kezken barri. Hemendik, bide batez, eskerrak emon gura

deutseguz bisitan etorri jakuzanei, batzordean euren kezkak azaltzeko asmotan. Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lamborena Barreras. Punto segundo del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Cuenta General  
([R.E.11/E/2019/0001886](#))

**Autor:** Diputación Foral de Bizkaia

**Asunto:** Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2018.

**Documento Principal:**  
([R.E.11/E/2019/0001886](#)),([R.E.11/E/2020/0002514](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (1A), [Admisión a trámite](#) (1B)

**Expediente:** ([11/B/08/0000364](#))

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Kontu Orokorra  
([11/E/2019/0001886SE](#))

**Egilea:** Bizkaiko Foru Aldundia

**Gaia:** Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2018. urterako Kontu Orokorra

**Dokumentu Nagusia:**  
([11/E/2019/0001886SE](#)),([11/E/2020/0002514SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (1A), [Izapidetzeko onartzea](#) (1B)

**Espedientea:** ([11/B/08/0000364](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Señor Iruarrizaga Artaraz, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Labur-labur, 2018. urteko Kontu Orokor honen magnitude nagusiak azaltzen ahaleginduko naz, kasuan kasuko Ekonomia eta Ogasun Batzordean sakonago aztertu ziralako Kontu Orokor hau eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak horri buruz egin eban txostena.

2018ko ekitaldi honetan, diru-sarrera arruntak 8.030 milioi eurokoak dira; gastu arruntak, barriz, 7.579 milioi eurokoak. Hori dala eta, aurrezki arrunta 451 milioi eurokoa izan da. Ekitaldi honetako inbersino garbia 175 milioikoa izan danez, finantzaketarako ahalmena 276 milioikoa izan da. Finantzaketarako ahalmen horri aktibo zein pasibo finantzarioen aldatetea gehitzen badeutsagu, gehi zarratutako ekitaldietako doikuntzak, hau da, hurrengo ekitaldian erantsi edo gehitu behar diran egozpenak..., aurrekontu-ekitaldian lortutako emoitzearen arabera, zarratutako ekitaldietakoak eta 2018. urterako arruntetakoak kontuan hartuta, azken defizita 56 milioi eurokoa da.

Gastuaren aldetik, nik neuk atal handi bi bereiziko neukez: lehenengo eta behin, konpromiso instituzionalak; eta, gero, Bizkaiko Aldundiaren zuzeneko kudeaketako gastua, alegia. Konpromiso instituzional horreetan, honako hauxe sartzen da: Batzar Nagusiei egindako ekarpena (9 milioi euro), Estatuari ordaindutako kupoa (479 milioi euro), Euskal Autonomia Erkidegoko karga arruntei eusteko ekarpenak (5.077 milioi euro) eta udal-finantzaketearen atala (894 milioi euro). Konpromiso instituzional horreen zenbatekoa 2018ko ekitaldi honetan betearazotako gastu guztiaren %85ekoa da gitxi gorabehera.

Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean kudeatzen dauan aurrekontua 1.562,4 milioi eurokoa da. Bertan be, kontu-sail bi bereizten dira: sailetako bertako kudeaketea (1.382,7 milioi euro) eta zor publikoa, hau da, amortizazioa eta interesak (179,7 milioi euro). Aldundiak, Foru Aldundi hau osotzen daberen sailek 1.382,7 milioi euro horreek erabili dabez euren eskumeneko arloak artatzeko, honako esparru honeetako gaietan: gizartea, nekazaritza, kultura, garraioa eta azpiegiturak...

Kontuen Epaitegiaren txostenari jagokonez, gai batzuk azaldu gura neukez: epaitegiak txosten garbia egin dau, eta bere ondorioetan adierazoten dau kontuak 2018ko ekitaldiko jarduera ekonomikoaren adierazgarri dirala faktore esanguratsu guztietan eta ondarearen zein egoera finantzarioaren irudi leiala be badirala. Horrezaz ganera, batzordean esan neban lez, adierazo egin gura dot txosten horren parte dirala Bizkaiko Foru Aldundiak Kontuen Euskal Epaitegiak legezkotasunari zein barruko kontrolari begira azaldukoari buruz egindako alegazioak. Halanda ze, biak batera irakurri behar dirala uste dot.

Amaitzeko, nire eretziz, adierazo egin gura dot Bizkaiko Foru Aldundiak 2018ko ekitaldi honetan garatu dauan jardurea ona edo oso ona izan dala, lehen aitaturako zenbakiak ez eze, sail guztien kudeaketa globala be kontuan hartuta. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarizaga Artaraz. A continuación, vamos a dar comienzo al turno de los grupos. Para lo cual, señora Fernández Angulo, portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, desde su escaño, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Bai, eskerrik asko, mahaiburu andrea. Adierazo egin gura dot berregintzat emoten doguzala kasuan kasuko informazio-batzordeetan euki genduzan agerraldiak. Gai-zerrendako puntu honi eta hurrengoari begira dinot. Hain zuzen be, une honetan eztabaidagai daukagun puntuan, batzorde bi be egin ziran, eta, bertan, Kontu Orokorra eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostena euki genduzan aztergai, azken horretan azalduko salbuespenak kontuan hartuta. Geure jarrera zein zan adierazoteko aukerea euki genduan, eta horri buruz egin genduzan itaunak erantzun ziran bertan. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Señor Benito Ziluaga, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Muchas gracias, de nuevo. Gaur, Bizkaiko Foru Aldundiko 2018ko kontuak eukiko doguz aztergai, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazio-txostena be ikusi ostean. Lehenengo eta behin, balorazio orokorrari jagokonez, egia da, eta ahaldun nagusiak inoan batzorderatzean, Herri Kontuen Epaitegiko ordezkariak be esaten eban, salbuespenak gero eta txikiagoak dirana eta kontuak hobetzen doazana, oro har. Edozelan be, esan be egin beharra dago Kontuen Epaitegiaren txostenera jotzen badogu, ikusi egiten dogula aztertutako 35 espedienteko laginketatik guztira 25ek eukiela gabeziaren bat. Horren ondorioz, honako hauxe da ratioa: Bizkaiko Foru Aldundiko espedienteen %70ek akatsen bat daukie euren izapideetan. Egia da akats arinak dagozana eta beste batzuk larriagoak edo oso larriak dirana. Gero, azalduko dot hori. Dana dala, oro har, oraindokarren hobekuntza-marjinea daukan zenbakia da, zeozelan esatearren.

Gai zehatzagoetan sartuta, eta ez naz lar luzatuko, behin eta barriro jazoten dan kasua dago, hau da, borondatez erretireteagaitiko sariak. Izan be, 10 urte daroguz kontu

horregaz. Hemen, kritika bi egin behar dodaz. Lehenengoa politikoa izango litzateke, hain zuzen be, zuok Foru Aldunditik egunez egun emoten dozuelako urrats bat gehiago, arlo publikoa enpresa pribadua izango balitz lez kudeatzeko. Kasu honetan, horixe egiten dozue. Horretarako, lehenengo eta behin, Behargin Publikoen Estatutua barik Beharginen Estatutua darabilzue. Ez dozue edozertarako egiten, giza baliabideen plan estrategikoak irazpen kolektiboak erkatzeko egiten dozuelako. Jakina, zuon alegazioetan ez dinozue irazpenak diranik, oso itsusi geratuko litzatekealako eta politago geratzen dalako errazionalizazioa dala esatea, hau da, giza baliabideak administrazioaren preminetara egokitzea. Jakina, gaur eguneko testuinguruan, gero eta gehiago pribatizetan da, gehiago kanporatzen da eta, administrazioa gero eta txikiagoa danez, inbertiduteko eta gure gizartearen preminei konponbidea emoteko gaitasun txikiagoa dauka. Horren guztiorren ondorioz, irazpenak dagoz eta enplegu publiko gitxiago, jakina.

Bigarren kritikeak zerikusi handiagoa dauka errespetu instituzionalagaz, esango neuke nik, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 10 urte daroazalako esaten sariei emoten deusezuen zerga-tratamentua ez dala zuzena. Nik neuk ez dakit badakizuen, baiezkoan nago, baina Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Euskal Institutuzinoen Hartu Emonei buruzko 27/1983 Legearen arabera, euskal sektore publikoko jarduera ekonomiko finantzarioen fiskalizazio-organu gorena da. Hau da, ez da nire auzokoa, fiskalizazio-organu gorena da erretireteagaitiko sariei tratamentu egokia emoten ez deusezuela dinotsuena. Nire eretziz, euskal instituzinoakazko errespetu instituzionalagaitik, uste dot kasu honetan amore emon beharko zeunkiela apur bat eta organu horri egin beharko zeunskioela kasu.

Berbera dinotsut Tutoretza Institutuaren eta BizkaiKOaren forma juridikoari buruz. Ni neu, egia esan, erabat bat nator Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren eretziaz honako hauxe dinoanean: bata desgaituen eta edadebakoan tutoretzarako erakundea danez eta besteak ondarearen zabalkunderako jarduerak kudeatzen dauzanez, tira, ba, euren helburuak zein diran kontuan hartuta, ez da bape zentzuzkoa euren forma juridikoa enpresa-erakunde publikoarena izatea. Zergaitik? Agirikoa dalako euren jardueretan merkaduan eragiketarik egiten ez dabena. Halanda ze, epaitegiak behin eta barriro azaltzen dauanez, zuzenbide publikoko erakundeak izan behar dira eta ez zuzenbide pribadukoak. Halanda be, jaramonik ez, erretireteagaitiko sariakaz jazoten dan lez, emoten dau belarri batetik sartu eta bestetik urtetan dauala Herri Kontuen Euskal Epaitegiak dinoana.

Ez dot uste serioa danik, eta uste dot Herri Kontuen Euskal Epaitegiak lako organuak egiten dauzan gomendioen aurrean erakusten dozuen jarrera aldatu egin beharko zeunkiela.

Amaitzeko, ez naz luzatuko salbuespen guztiei buruz berba egiten, baina nahierara emondako 4 dirulaguntzak nabarmenduko dodaz, holantxe egin ziralako, nahierara. Bizkaiko udalei emon jakezan kirol-instalazioetarako. Milioi bat eurotik gorako 4 dirulaguntza, eta loteria hori Erandiori, Durangori, Santurtziri eta Basauriri tokau jaken. Tira, nik neuk lehenago be esan dot tribuna honetan batzuetan sumari samarra nazala, baina halanbeharretan be ez dot sinisten, eta, hara non!, kolore politiko bereko 4 udal dira. Beharbada, sumari samarra naz oraindorarren, baina zeozerk esaten deust 2019tik Durangori futboleko pipetarako be ez deusiela dirurik emongo. Tira, ba, dirulaguntza horreen kontua nahikoa larria da, zelan kudeatu diran. Nire ustetan, Kultura Sailak funts barik ezarritako konparaziozko bidebakokeria hori konpondu beharko leuke orain. Gure eretziz, lanean hasi beharko litzateke, Bizkaiko udal guztiek kirol-instalazioen arloan daukiezan premina guztiak mapatu beharko leukez eta, gitxienez, konkurrentzia lehiakor bidezko dirulaguntzen lerro barria atera beharko leuke bidebakokeria hori konpontzeko.

Hori guztiori dala eta, Kontu Orokorraren aurkako botoa emongo dogu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. Señor Álvarez Castrejón, portavoz del grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideok, batzarkide jaun-androk, buenos días a todos/as. Gaur, Osoko Batzar honetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2018. urteko Kontu Orokorra eukiko dogu berbabide. Ganetik begiratuta, pentsau daiteke benetan sasoz kanpoko dala 2021ean igaro dan zeozeri buruzko txostena jorratzea. Gogoratu egin behar da Herri Kontuen Euskal Epaitegiko Osoko Bilkurea bera dala bere urteko lan-plana onartzen dauana, eta, hori egin baino lehen, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak eta Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietako kasuan kasuko batzordeek bertan sartu beharreko lehentasun-eskaerak aztertzen dauz.

Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazio-txostenean, kasuan kasuko batzordeetan zehetasunez azaldu zan lez, foru-sektore publikoko egoera ekonomikoaren legezko, kontabilitateko eta azterketa finantzarioko faktoreak azaltzen edo agertzen dira. Era berean, egia da, gomendio batzuk be emoten dauz barruko kontrolerako sistemei nahiz kudeaketa-prozedurei buruz, eta, aldi berean, Aldundiak berak banan-banan alegetan dauz azalpen luze eta zehearen bidez.

Salbuespen edo gomendio horreek erespide-aldeak dira benetan, eta ez daukie eragin adierazgarririk jarduera ekonomiko finantzarioa eta bere prozedurazko ondorioak arautzen dabezan erespideen betearazpenean, eta kudeaketea hobetzeko nabarmentzen dira. Egia esan, esperientzia profesionalagaitik, esan egin ahal deusuet beti ez dala erraza prozedura horreek aldatzea, ohiko egikeragaitik beragaitik, ohiturakaitik, edo, beste barik, batzuetan, prozedurako laburbideakaitik.

Talde sozialistatik beste batzuetan be adierazo dogu, txosten horreei buruz berba egitean, beharrezkoa dala Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dauzan gomendioak instituzino guztien egunez egunekoan eta jardueran ezarten segidutea, gure eretxiz, emon beharreko zerbitzua edo garatu beharreko jarduerak hobetzeko tresnak diralako. Auditoriako txostenaren emoitzearen arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoa osotzen daben erakundeek zuzentasunez bete dabe euren jarduera ekonomiko finantzarioa arautzen dauan legezko arautegia, eta horixe bera da garrantzitsuena. Epaitegiaren lanaren irismenean, ez da gastuaren egokitasunari eta eraginkortasunari buruzko azterketea sartzan, eta ulertzeko modukoa da. Egia esan, gizarte-ondoizatearen hobekuntzen kopurua helburu gaxa da kontzeptuaren eta neurketaren ikuspegitik.

Ganbera honetan ordeztutako talde politikook, guztiok, ondo baino hobeto dakigu zelan gura dogun fondo publikoak erabiltea, nori eta noiz emon behar jakozan bizkaitarrek zerga-ahaleginean egindako ekarpenetik datozen baliabide horreek. Halanda ze, horra hor ekintza politikoa.

Ezelako zalantza barik, demokrazian ulertzeko modukoa, zilegi eta ezinbestekoa da, esango neuke nik, oposizioak gobernuaren jarduerak zehatz-mehatz aztertzea eta kritiketea. Edozelan be, ez da hain ulergarria, edozelako etekin politikoa atera gurean, txiki-txikiena bada be, susmoaren itzala kudeaketara, kontrolera eta, era berean, lan-kontratazinora edo erakundeko bertako lan-prozedurara hedatzea. Nahierako dirulaguntzak, loteriak, irazpenak, erretiroakaz nahastuta. Susmoaren itzalak.

Finantzei jagokenez, zergei jagokenez, ezin labanagoak diran gaiak izanda, ezin gara ardurabakoak izan, ezelan be ez. Ostantzean, susmoaren itzal horrek modu berean estalduko gaitu danok, eta, hori, berez, ezin bidebakoagoa da erabat. Ideen bidez defendidu behar dogu herritarren interes nagusiak. Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. Señora Urkaregi Etxepare, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

EH Bildu presentó dos enmiendas a la totalidad a los presupuestos de 2018. La primera, para la devolución de todo el proyecto presupuestario; y la segunda, para la devolución del presupuesto del Departamento de Acción Social. Los motivos para ello fueron tanto cómo se percibían los ingresos como que no estábamos de acuerdo con las prioridades fijadas en los gastos. En el caso del Departamento de Acción Social, que predominaba la subcontratación, que la Diputación no priorizaba los servicios sociales sino las prestaciones y/o que los objetivos que se fijaban en los presupuestos de 2018 no permitían dar los pasos pertinentes para el cumplimiento de las previsiones establecidas en el Mapa de Servicios Sociales de Bizkaia.

Ahora, podemos ver en la Cuenta General cómo se han desarrollado los presupuestos. Yo no me voy a centrar solamente en el informe de fiscalización, ya que, en primer lugar, voy a empezar por ver cómo se han ejecutado los gastos, ingresos y los gastos, y, luego, sí que me referiré al informe de fiscalización. Porque lo primero es que, si miramos cómo se han ejecutado los ingresos, debemos decir que se recaudó más dinero en impuestos, más de 90 millones de euros, concretamente. Sin embargo, la cuestión no es solo una mayor recaudación, sino cómo se recauda ese dinero. ¿Qué vemos nosotros/as?

Que, en un principio, en los presupuestos se establecía que se recaudaría más mediante los impuestos directos que los impuestos indirectos, pero, luego, al final, lo que vemos en la Cuenta General es que la recaudación real ha sido mayor a través de los impuestos indirectos que a través de los impuestos directos. Lo que no es una cuestión neutra. Lo que significa que nuestro sistema fiscal no es justo, y ¿por qué decimos eso?

Porque los impuestos directos gravan de manera directa la riqueza. En cambio, los impuestos indirectos, y el principal que conocemos es el IVA, son totalmente injustos. ¿Por qué? Porque un IVA del 4% o del 21% lo tiene que pagar por igual una persona que gana 1.000 euros o, no sé, una persona que tiene un patrimonio de 10.000 o de un millón de euros. Afecta de manera completamente distinta, cómo afecta el IVA del 4%, del 10% o del 20% en nuestras compras, es distinto en una persona o en otra. Por ello, para que el sistema sea justo, deberíamos recaudar más mediante los impuestos directos, y eso no ocurrió en 2017, ni tampoco en los otros años. Ese constituye uno de los elementos que hemos de corregir en nuestro sistema fiscal.

¿Qué sucede en los gastos? Que en los gastos también consta cómo se gasta la Diputación Foral de Bizkaia el dinero que nos pertenece a toda la ciudadanía de Bizkaia. En ese aspecto, mantenemos grandes divergencias. Voy a empezar:

Bizkaiko Aldundiko aurrekontu guztietan, Gizarte Ekintzarako zenbatekoa nabarmentzen da. 2018an, ia-ia 515 milioi gastau ziran gizarte-ekintzan, hau da, Aldundiak kudeatutako aurrekontuaren %37,23. Dana dala, diru-sarreretan be jazoten dan lez, diru hori zelan inbertiduten dan ikusten badogu, programa bati, edadekoen programeari, erreparetan badeutsagu, 173 milioi, baina 173 milioi horreetatik, ia-ia %90, 154,5 milioi, esleitzen jakez egoitzetako eta eguneko zentroetako zerbitzua eskaintzen daben kanpoko enpresei. Ganera, zenbateko hori GUFeko edadekoen programako inbersinoagaz erkatzen badogu, ikusi egiten dogu Leioan, Gallartan eta Elorrion edadekoentzat egozan 3 egoitza publikoetarako, badakigulako orain bat gitxiago eukiko dogula Bizkaian, 24 milioi egozala 2018an eta 18

betearazoko dirala. Halanda ze, %25 itxi zan betearazo barik. Datu horreek begiraten badoguz, 154,5 milioi daukaguz edadekoentzako zerbitzuak kudeatzen dabean enpresentzat, egoitza publikoetan inbertidutako 18 milioiren aldean, hau da, 8,6 aldiz diru gehiago enpresentzat.

Halanda ze, argi eta garbi dago Bizkaiko Aldundi honetako kudeaketa publikoko gizarte-zerbitzuak ahulak dirana eta bere horretan segiduten dabena, Covid-19aren pandemia triste honetan ikusi ahal izan dogun lez.

El presupuesto de 2018 terminó con superávit, y, luego, como se ha comentado, compensándolo con los ejercicios anteriores, fue deficitario. En el ejercicio de 2018, no se gastaron 42 millones. 8,6 millones, en el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales. ¿Cuál fue el programa que menos se desarrolló? Buen Gobierno y Transparencia. 7,8 millones menos, en el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial. 7 millones, en el Departamento de Hacienda y Finanzas. 5,7 millones, en Acción Social. 2,2 millones, en el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

Es decir, había dinero, pero en el ejercicio de 2018 la Diputación Foral de Bizkaia invirtió 8 millones menos en políticas sociales. A nuestro entender, es incomprensible. Es incomprensible que cuando existen necesidades no se invierta todo el dinero para dar respuesta a todas esas necesidades sociales. Sabemos que el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas siempre dice en su informe de fiscalización que en opinión de este Tribunal las entidades que integran el sector público foral de Bizkaia han cumplido razonablemente, excepto por los incumplimientos que se detallan en los párrafos 1 a 7.

Vale. En nuestra opinión, merece la pena analizar lo que dice el informe de fiscalización, y se citan otra serie de cosas. Sin embargo, yo me referiré a otras. Voy a repetir algunas, pero a mí, respecto a los cumplimientos legales, sí que me gustaría destacar un nuevo elemento que consta en este informe de fiscalización, y se refiere a que en 2018 ha habido 7 incumplimientos legales, entre los que se encuentra el hecho de que, aunque el plazo del contrato se había extinguido, han continuado prestando el servicio de atención a las personas visitantes de las actividades de educación ambiental, adjudicadas por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, en los centros de interpretación de Urkiola, Gorbeia y Armiñon. Finalizaba el contrato, y se prorrogó mediante un decreto. Dice el informe de fiscalización que se trata de un incumplimiento legal, es decir, que no se ha cumplido la ley, es decir, porque no se puede prorrogar mediante un decreto. Ya sé que en las alegaciones se dice que esas actividades eran necesarias, y es cierto que eran necesarias. También sé que se trata de un contrato entre no sé cuántos/as y que no se trata de mucho dinero, pero creemos que una institución pública no puede infringir la ley de contratación ni una sola vez.

Luego, existen una serie de cuestiones referentes al sistema de gestión interna y a los sistemas de control interno. En la contratación, nosotros/as debemos poner sobre la mesa cinco contratos en lo que concierne al importe y en lo que concierne a su incidencia. Nos referimos a los contratos de Bizkaibus. Dice el informe de fiscalización que en cinco contratos adjudicados en 2014 para la gestión del transporte público, la Diputación Foral de Bizkaia ha reconocido en diciembre de 2018 que posteriormente se ha producido un desequilibrio económico y financiero que no se puede imputar a las empresas adjudicatarias.

¿Qué supone eso? Que en 2018 se necesitan 17,4 millones más. A su vez, supone modificar en 29,4 millones de euros las anualidades del gasto comprometido hasta 2024.

¿Qué dice el Tribunal? Que se debe controlar previamente cómo se desarrollan los contratos, pero aquí y en la alegación se manifiesta claramente que los pliegos y el coste real del servicio no tenían nada que ver. Por decirlo de alguna manera, que los pliegos estaban mal redactados. Sabemos que ocurrió en una legislatura anterior, pero la cuestión es ¿qué vamos a hacer ahora? ¿Vamos a estar aportando más dinero hasta el año 2024? ¿O no



merece la pena redactar de nuevo los pliegos y publicar unos nuevos? U otra cosa, aquí también, como ocurre con los servicios sociales, deberíamos reflexionar por qué la mayor parte de nuestras líneas de transporte público están en manos de empresas privadas, y no de cualquier empresa privada, puesto que la mayoría son multinacionales, en manos de multinacionales. Esta es la pregunta: ¿Por qué no gestionamos el transporte público mediante una institución pública? Ahí dejamos la reflexión.

En las subvenciones también se plantea otra cuestión que se ha citado antes, es decir, que se concedió a 4 ayuntamientos un importe de 1,7 millones de euros, y dice el Tribunal que se debería sacar una nueva línea de subvenciones. Eso es lo que debería hacerse, porque, desde luego, no es casualidad, y se ha dicho, que esos 4 ayuntamientos sean del mismo color político. Voy a decir algo más. Algunos/as recordamos que al menos en la campaña de elecciones municipales y forales de 2019, se presentó a esos/as directores/as de obra como un logro de las autoridades municipales. La gestión de una institución pública debe ser ejemplar, ejemplar. Sinceramente, eso no es lo que da a entender lo que se destaca en el informe de fiscalización de 2018.

En nuestra opinión, se debe tener en cuenta lo que dice el informe, no se puede volver a repetir y se debe mejorar la gestión presupuestaria de la Diputación Foral de Bizkaia. Por eso, nosotros/as votaremos en contra. Vamos a votar en contra, porque no coincidimos en cómo se recauda el dinero, ni en las prioridades que se fijan en los presupuestos, ni en cómo se ha gastado, pero ni siquiera porque lo que se destaca en el informe de fiscalización requiere modificaciones, para cumplir con la ley y mejorar la gestión. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Urkaregi Etxepare. Por último, señor Lerma Mentxaka, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Lo que vamos a hacer nosotros/as es votar a favor, pero sin lugar a dudas, de la Cuenta General del año 2018. A pesar de que han hablado de lo que hemos escuchado, sin lugar a dudas voten a favor de las cuentas del año 2018.

Egia esan, nire agerraldia baino lehen berba egin dabenak beharbada lar oinarritu dira legezkotasunaren betearazpenagaz zerikusia daukien alderdietan, eta, egia esan, nire eretziz objektibotasuna, errealidadea eta egia zer dan modu larrian desitxuratzen daben azalpenak emon dabez. Era larrian desitxuratzen dabela dinot, uste dodalako ez dabela behar dan lez emoten Kontuen Epaitegiaren fiskalizazino-txostenaren eukiaren barri eta, arabere gitxiago, Kontuen Epaitegiko presidenteordeak hilebete honen hasieran Ogasun Batzordean emondako azalpenen barri.

Nire eretziz, besteak beste, ezin da ikusarazo berez kudeaketea irregulartasunez beteta dagoala edo irregulartasunak ohikoak dirala, holantxe ez dalako eta azaleratu dana garrantzi handikoa be ez dalako, inondik inora be ez. Ezin da ikusarazo gero eta txarrago gagozala, eta ezin da ikusarazo gai batzuk zuzentzen ez dirala edo Foru Aldundiak eta foru-sektoreko ganerako erakundeek euren egunez egunekoa eta kudeaketan Kontuen Epaitegiak egiten dauzan gomendioak kontuan hartzen ez dabezala, eten barik ezarten dabezalako.

Oso kontuan hartu beharra dago Kontuen Epaitegiaren txostena foru-sektore publiko osoari buruzkoa dala eta ez bakarrik Foru Aldundiari buruzkoa, baita GUFeri eta, berez, enpresa-sektoreari buruzkoa be. Izan be, foru-sektore publikoa osorik aztertu eta ikuskatu ostean, 7 salbuespen dira, 7 baino ez. Orribeteen sartzen dira, euren laburpena, zehazten diranak edo Epaitegiaren eretxiz legezkotasunaren alderdi zehatz bat behar dan lez beteten ixten ez dabenak.

Nire eretxiz, horrek ez dau esan gura arazorik dagoanik. Nire ustetan, hain zuzen be, neurri horretakoa dan hori Foru Aldundiaren eta foru-sektore osoaren egikera onaren erakusgarri da. Ez da, ezta hurrik emon be, porrota, arrakasta baino, 7 salbuespen bakarrik egotea. Ganera, urteen joan-etorrian eta aurreko garaietan, beste urte batzuetan jazo ahal izan danaren aldean, gero eta gitxiago dira eta garrantzi txikiagokoak. Alde horretatik, oso kontuan hartu beharra dago Epaitegiaren txostena nahiz lana bera salbuespenezkoak dirala, hau da, auditoriako teknika berme-emoile batzuk ezarten dira, ustezko irregulartasunak igarteko, eta, lan horren ostean, 7 baino ez dira zehaztu diranak, nabarmendu diranak. Halanda ze, ganerakoa dan-dana ondo dagoala interpretatu beharra dago. Hori holantxe da.

Horrezaz ganera, testuingururatu be egin behar dira, testuingururatu. Lehenengo eta behin, Ogasuneko diputaduak esan dauan lez, Epaitegiaren eretxi teknikoa irakurri beharra dago, eta, gero, irakurri edo aztertu be egin beharra dago dana dalako saila edo dana dalako erakundea zer inguruabarretan egon dan behartuta zentzun horretan jokutzen.

Apur bat testuingururatu ezker, egia esan, kopuru batzuk emoten dabez. 2018ko Kontu Orokorreko 84 espediente be aztertu dira, eta kopuru hori aurre-aurreko urtekoen azterketakoa baino handiagoa izan da, 66 espediente izan ziralako. Kontratuen ikuspuntutik, 84 espediente horreetako gastua 709 milioikoa zan orain dala urtebete; eta, urtebete lehenago, 595ekoa baino ez. Bestetik, 2018an betearazotako gastuaren ikuspegitik, 227 milioi aztertu dira, eta kopuru hori be aurre-aurreko ekitaldikoa baino handiagoa da.

Era berean, Kontuen Epaitegiak agerraldian azaldu eban, egia esan, gero eta gaitasun handiagoa daukie zehetasun handiagoetara ailegetako. Ez dakit termino hau erabili eban: "leku handiagoetara". Argi eta garbi azaldu eban esatean, egia esan, gero eta argiagoak dirala bai kontuak bai kontratazinorako erabilitako prozedurak, edo Aldundiak zuzenean emon daikean informazioa be bai, segidu diran prozedurei jagokenez. Badaukie, komatxuen artean, historia eta bilakaerea ezagutzeko abantaila hori, zelan ziran gauzak orain dala urte luze, zer akats egozan. Ganera, eten barik egon daitekez itantzen eta aztertzen akats horreek berregitea saihestu dan. Bestetik, ezelako zalantza barik, gaur egun daukagun informazio-kopurua eta informazio hori jorratzeko gaitasuna aurreko garaietakoak baino askoz be handiagoak dira. Horren ondorioz, ezelako zalantza barik, gero eta gaitasun handiagoa daukie zehetasun-maila handiagora ailegetako ustezko irregulartasunak zehazteko orduan edo hobekuntza-ekintza batzuk proponiduteko orduan.

Holantxe adierazoten dau Kontuen Epaitegiak bere agerraldian, agerraldian nabarmendu egin ebalako Epaitegiak bere txostenak hobetzen dauzala urterik urte, errazagoak eta ulergarriagoak izan daitezkan, eta, modu berean be, erakundeek, oro har, eta Bizkaiko Lurralde Historikoa osatzen dabenek, batez be, barruko kontrolerako sistemak hobetzen dabezala, Epaitegiak berak egindako gomendioak kontuan hartuta. Holan, bada, adierazotako eretxiak hobeak dira urterik urte, eta salbuespen gitxiago daukiez.

Ardurabakokeria da kontrakoa ikusarazotea, hain zuzen be, egia ez dalako. Zehetasunen bat sakonago aztertze, tira, ba, ez dakit zelako interesa daukien Batzar Nagusiotako kide batzuek, agerraldian azaldu diran gauzak badagoz, Epaitegiak Benito jaunari ezin hobeto azaldu badeutso, zenbakien bidezko erkaketari jagokonez, ez dala egokia urte bateko akatsen kopuruaren eta beste urte batekoaren arteko erkaketa numerikoa egitea edo topau

diran akatsen kopurua erkatzea aztertu diran espedienteen kopuruagaz. Akatsen materialtasuna zein dan ikusi beharko litzateke.

Azaldu be egin da, soldata-ordain jakin batzuk PFEZean zergapetu behar diran edo PFEZean zergapetu behar ez diran zehazteko orduan, azaldu egin da erespide-aldeak dirala eta, ganera, baleitekeala egintza gehigarri barrizaileraren bat topetea, 2018. urtean ez egoana, Foru Ogasunaren eretxi lotesleari jagokonez, zalantza batzuk argitzeko orduan.

Benetan uste dot Bizkaibuseko kontratuari, Bizkaibuseko zerbitzuko kontratu batzuei buruzko alegazioak edo salbuespenak ez dauala berez kolokan jarten kontratua aldatzeko preminea, desoreka ekonomikoa zuzendu ahal izateko. Beste barik, aitatu egiten dau lehenago egin bazan, 2018ko ekitaldi honetan ez ebalu hainbesteko eraginik eukiko ikuspegi ekonomikotik. Edozelan be, ez dau kolokan jarten, ezta hurrik emon be, zuzenketa hori egiteko preminea, ezta zuzenketea be, auditoriako txostenak egin baino lehen.

Horren ondorioz, aldeko botoa emongo dogu, ezelako zalantza barik, horrexegaitik, legezketasunaren betearazpena arrakastatzen hartu behar dalako eta, beti-beti, hobetzeko aukerak dagozako, ezelako zalantza barik. Aldeko botoa emongo dogu, kontabilidade-egoeren ikuspuntutik, lehen Ogasuneko diputatuak esan dauan lez, ezin hobeto islatzen dabelako foru-sektore publikoaren egoera ekonomikoa. Ganera, 2018ko ekitaldian egindako eragiketa guztietan, salbuespen bakar bat be ez dago, ezta zeozer nabarmentzeko ezelako paragraforik be, azpimarratzeko, eretxirik aldatu barik edozein gai azpimarratzeko. Aldeko botoa emongo dogu, foru-sektore publikoan aurrekontu-oreka eta jasangarritasun finantzario egokiak dagozako eta administrazio publiko moduan ezarten deusiezan printzipioak beteten dauzako.

Epaitegiak be esan eban txosten hori Estaduko Kontu Hartzailera Nagusira bialdu dala eta ez dauala ezelako alegaziorik egin. Aldeko botoa emongo dogu, hain zuzen be, neurri batean ezelako zalantza barik egongo diralako kanporaketak edo alkarlan publiko pribaduak zerbitzu publikoak emoteko orduan. Izan be, urteko kontuen arabera, Aldundiak berak kudeatzen dauan aurrekontu horretan, gehienak, egia esan, beste eskumen batzuk daukiezan beste administrazio batzuek daukaguzan konpromisoak ordaintzeko diru-sarrerak dira. Aldeko botoa emongo dogu, Aldundiak kudeatzen dauan 1.532 milioiko aurrekontuaren %37,23 Gizarte Ekintza Sailera joan dalako. Gizarte Ekintza Sailean gastau da. Ganera, danetara, Gizarte Ekintza Sailaren, Garraio Sailaren, hain garrantzitsua dan Bizkaibuseko zerbitzua kontuan hartuta, eta Enplegua, Gizarteratzea eta Bardintasuna Sustatzeko Sailaren gastuaren betearazpena Foru Aldundiak betearazo dauanaren %52,28koa izan da. Halanda ze, ezelako zalantza barik, argi eta garbi dago zein dan Aldundiaren jardueria eta lotune estu-estua daukana personentzako, premina handiena daukientzako zerbitzugintza publikoagaz, zerbitzu publikoa behar dan moduan garatu daiten eta bizkaitar guztien artean beharrezkoak diran oreka nahiz kohesino soziala lortzean ahal danik eta berme handienak bilatu daitezkan. Horregaitik, aldeko botoa emongo dogu. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Lerma Mentxaka. Una vez concluido el debate, someteremos a votación la Cuenta General del año 2018 del Territorio Histórico de Bizkaia. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? ¿Abstenciones? El resultado es el siguiente: votos emitidos en total, 49: votos a favor, 32; votos en contra, 15; y abstenciones, 2. Por tanto, se ha aprobado la Cuenta General del año 2018. Punto tercero del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Entidades Locales: Banderas, Denominación y Escudo ([R.E.11/E/2021/0000187](#))

**Autor:** Diputación Foral de Bizkaia

**Asunto:** Acuerdo de modificación del escudo heráldico de UGAO-MIRABALLES, de conformidad con el acuerdo adoptado por el Pleno de la Corporación.

**Documento Principal:** [Ver](#)

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (2A), [Dictamen de la Comisión](#) (2B), [Corrección de Errores](#) (2BCE)

**Expediente:** ([11/B/13/0002026](#))

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Toki erakundeak: banderak, izenak eta armarriak ([11/E/2021/0000187SE](#))

**Egilea:** Bizkaiko Foru Aldundia

**Gaia:** UGAO-MIRABALLESko armarri heraldikoa aldatzeko erabakia, Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiarekin bat etorritik hartutakoa

**Dokumentu Nagusia:** [Ikusi](#)

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (2A), [Batzordearen Erizpena](#) (2B), [Hutsen zuzenketea](#) (2BCE)

**Espedientea:** ([11/B/13/0002026](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Lo que se debate y requiere nuestra aprobación es el Dictamen de la Comisión. Comenzando con el turno de los grupos, no sé, la portavoz del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia lo ha anunciado antes. Muchas gracias. Señora De Madariaga Martín, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Buenos días. Muchas gracias. Tira, azkar-azkar.

Gure taldetik, batzordean esan genduan lez, bere armarri heraldikoa aldatzeko asmotan Ugao-Miraballeseko Udalak proponidutako aldaketea babestuko dogu, funtsezko hiru errazoiengaitik.

Lehenengo eta behin, babestu egingo dogulako eta etorkizunean be babestu egingo dogulako monarkia gaz eta eleize gaz lotuta dagoan sinbologia kentzeko edozein egintza. Ganera, gure eretziz, armarri barri horrek, zeozelan, askoz hobeto ordeztzen dauz Ugao-Miraballeseko biztanleak, eta, era berean, askoz be hobeto egokitzen da bere balioetara, bere ideologiara eta bere nortasunera.

Horrezaz ganera, bigarrenez, gure ustetan, indarreko legeriaren arabera egin da prozesua. Halanda ze, ez dago ezelako eragozpenik jarrera horri jagokonez. Era berean, garrantzitsua be bada Ugao-Miraballeseko Udalak hartu dauan erabagiak beharrezko babes juridikoak eta teknikoak be badaukazala kontuan hartzea, hau da, Eusko Ikaskuntzarenak nahiz Aingeru Astuirenak. Halanda ze, aldaketa hori babestuko dogu.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso, desde su escaño, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Bai, eskerrik asko, mahaiburu andrea. Beste batzuetan lez, 1983. urteko Foru Arauaren 70.-74. artikuluetan, baina batez be 72. eta 73. artikuluetan, zehaztutako izapide guztiak bete ostean, guk ontzat emoten dogu, holan esaterik badago, behintzat, udalerrri honetako Udaltatzak erabagi dauana. Halanda ze, beste batzuetan lez, aldaketa hori babestuko dogu.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Otermin Eraso. Señora Urkaregi Etxepare, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta.

EH Bildu también va a votar a favor. Es una petición realizada por parte del ayuntamiento, todos los informes son favorables y, en nuestra opinión, no podemos más que apoyar la petición planteada por parte del ayuntamiento. Además, es más, si tenemos en cuenta que el actual escudo es del año 1970, que se puso mediante decreto a propuesta del Ministro de Gobernación de España una vez debatido en el Consejo de Ministros, es decir, no sabemos si lo consultaron con el pueblo. Hoy en día, los/as representantes municipales proponen esa modificación, eliminar la corona real, y EH Bildu votará a favor. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Por último, señora Gómez Devesa, portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, tiene la palabra.

La Sra. **GÓMEZ DEVESA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Gure aldetik, labur-labur, adierazo egin gura dot Udaltatzak adostutako erabagia dala, errazoi heraldiko historikoetan oinarrituta dagoala, errazoi horreek txosten heraldiko zein bexilologikoaren bidez egiaztauta dagozala, egindako txosten guztiak aldekoak dirala eta horretarako aurreikusitako prozedureagaz bat datorrela. Hori guztiori dala eta, gure taldeak aldaketea babestuko dau. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Gómez Devesa. Por tanto, una vez concluido el debate, someteremos a votación el Dictamen de la Comisión. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? ¿Abstenciones? El resultado es el siguiente: votos emitidos en total, 50: votos a favor, 48; ningún voto en contra; y dos abstenciones. Por tanto, aprobado el Dictamen de la Comisión.

Con esto, agotado el Orden del Día, se levanta esta Sesión Plenaria. Les deseo muy buen día a todos/as.

Batzarra 12:43an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 12:43 horas.